

tzea. Guzti horren oinarrian, berriz, sines-
te hau dago: hildakoek heriotzaren ondoren
ere nolabait "bizirik" irauten dutela.

Ik. Arimen eguna.

Asilo-eskubidea

Erdi Aroan, elizek eta beste eraikin
erlijiozkoek zuten pribilegioa, beraietara
iheska zihoan edozein delitugileri babesa
ematekoa; han barruan egonez gero, legearen
erasotik libre zegoen gaizkilea.

Eskubide hori enbaxadatarara pasa da na-
zioarteko zuzenbidean.

Askapena

Erlijioek eskaintzen duten salbamena
ulertzeko funtsezko kontzeptua izan ohi da
askapena. Batzutan helburu horren alderdi-
tzat hartzen da, barutzapenarekin batera:
askapenak eta burutzapenak osotzen dute sal-
bama orduan. Baina sarritan askapenak be-
rak salbamenaren izaera osoa --zoritxarren
kentzezkoa eta zorionen ipintzezkoa-- har-
tzen du, eta bi kontzeptuok berdintzat jo-
tzen dira, ñabardura eta konnotazio ezberdi-
nak aparte. Hala ere, erlijiozko askapenaren
ulerpena ezberdina izan ohi da erlijio bate-
tik bestera, kosmologiaren, antropologiaren
eta *teologia osoaren arabera.

Kristautasunaz gain, askapenaren kon-
zeptua gehienbat Indiako erlijioek landu
dute, bereziki *hinduismoak eta *budismoak.
*Moksa-ren eta *nirvana-ren muinean dago
askapenaren ideia: irudipenezko mundu hone-
tako atsekabeetatik ateratzea da funtsean
budismoaren helburua; *samzara edo transmi-
grazio-kateatik ateratzea da oinarrian mok-
sa hinduista.

*Manikeismoak izpiritua materiaren pisu
eta lokarrietatik ateratzearen gisara uler-
tzen du askapen salbagarria. Kristautasuna-
ren historian ere joera manikeistak behin
eta berriro agertu izan dira eta garrantzia
handia eduki du zenbait *sektatan eta *mona-
kotzaren izpiritubidean.

Kristautasunak aldarrikatzen duen aska-
penak Itun Zaharrean ditu bere sustraiak,
Israel Herria Egyptoko morrontzapetik atera
eta askatu zenetik. Jesusen predikua, S.
Lukak dakarrenez (4,14-20), *behartsuen, ga-
tibuen, gaixoen eta zapalduen gaitzetiko
askapena aldarrikatuz hasten da.

Kristau-mezua eta salbamena gizon-emaku-
meen bekatuarekiko askapena da funtsean.
Giza askatasunaren dimentsio guztiak hartzen
ditu askapen horrek, ordea: kosmikoa edo
mundua gizakiaren nahira moldatzea, soziala
edo gizarteko zapalkuntza eta zuzengabeke-

rietatik ateratzea, antropologikoa edo bar-
ne-traba psikologikoak gaizditzea.

Kristau-teologiatik begiratuko diogu be-
reziki kontzeptu horri, hemen. Askatasuna
ekartzera etorri zela Jesus dio Ebanjelioak:
Zapalduak askatzera bereziki. Jesusek alda-
rrikatutako erreinuaren alde bat da askata-
suna, osagarri bat alegia, erreinu hori,
*bakearena, *justiziarena, *maitasunarena
eta askatasunarena edo *libertatearena bait
da, liturgian esaten denez.

Jesusek agindutako askatasuna, askatasun
osoa da. Osotasun horrek askatasunaren bi
esanahi hauetatik ihes egitea eskatzen du:
alde batetik, Ebanjelioan ematen den askata-
sun-agintzaria soilik izpiritualtzat eta,
bestetik, askatasun soziopolitiko soiltzat
hartzetik. Osoa bada, osoa da: gizon-emaku-
meen nahi, gogo, irrika, behar eta amets
guztiak bete nahi ditu. Ebanjeliotik dato-
rren askatasuna izpirituala eta materiala
da: gatibutasunezko katea eta uztarri guz-
tiak apurtu eta gizon-emakumeak askatzera
etorri da Salbatzailea.

Zehatzago esanda, Jesusentzat gaizki
guztien iturria eta sustraiak *bekatua da.
Bekatutik sortzen da gaiztakeria oro. Sus-
trai hori erauzi nahi du Jesusen mezuak,
bekatuaren ondorio den *heriotzaren hatzapa-
rretatik gizon-emakumeak ateratzeraino. Be-
katuaren ondorio ustela dira norberak senti-
tzen duen erra zein gizartean ikusten ditu-
gun gaizkiak, ezberdinkeria eta zapalketa
guztiak. Bietatik atera beharra dago, aska-
tasun osoa lortzeko.

Askatasun edo *libertaterako lehen urra-
tsa Jesusen mezua fedez onartzea da. Egiazio
fedea, ordea, praxian edo ekintzan adieraz-
ten da, ez bait dago federik obra barik.
Lehen urratsa, beraz, onartutako fedea egi-
teetara eramatea litzateke. Guzti hau espe-
rientzia edo bizipen-mailakoa da batipat.

Libertatea eta norberaren eskukotasuna,
adiera honetan, ez da lagun banakoak eraba-
kiak hartzeko duen gaitasuna --hori ukatu
gabe, noski--. Areago, prozesua da askatasu-
na: askapena da. Bi mailatan egiaztatu behar
da historia konkretuan prozesu hori: Norba-
nakoaren eta egituren mailan. Biak dira pro-
zesu berberaren bi aurpegi beharrezkoak.
Bekatutik ihes egin eta askatuta gaudela
esan ahal izateko, bi maila horiek lortu
behar dira.

Prozesuari askapena deritza, beraz. Hiru
urrats ditu: egitura sozio-politiko-ekonomi-
koa gizatartzea; giza gaitasun guztiak gara-
tzea; inmanentziaren mugak urratu --heriotza
fisikoaren beldurra uxatu, alegia-- eta
*traszendentziara heltzea.

Teologiaren ikuspegitik, askatasuna lortzeko hiru urrats horiek egin behar dira: Ez bata bestearen atzetik, dinamika bakarrenen bide luzean baizik. Prozesu horretan, bestalde, ez dago inoiz ere lorpen behin-betikorik. Lorpenen bat behin-betikotzat jotzea Jainkoaren mailara eramatea da: *idolatria, erlijiozko hizkeran. Lorpen behin-betikoa Jainkoaren eskuetan dago eta ez du gizakiak ezagutzen. Lorpen partzialak, ordea, askatasun osorako urratsak dira. Horiek egitea ala ez egitea da egiaztabidea, askapen osoan sinesten den ala ez den.

Era horretara esaten da, Jainkoaren erreinuaren *utopiaren adierazpidea dela askapena. Nahitaezkoa da askatasun partzialak lortzea, askatasun osoa eskuragarri dela sinestertzeko. Gizakiak askatasun partzialak ez ditu lortzen bere zilborrera eta zerrurantz begira geratuz, aske sentitu arte --Jainkoaren eragin ezinezkoaren zain edo-- eta bai, nork bere burua emateraino, *senidea askatzeko prozesuan parte hartuz. Hemen daude askapen-teologiaren apustua eta horrek sortzen dituen esperantzak eta kezak.

Ik. Libertatea; Jainkoaren erreinua; Askapen-teologia; Salbamen-historia.

P. Agirrebaltzategi/J.M. Zalakain

Askapen-teologia

Hego Amerikan, Vatikanoko II. Kontzilioaren ondoren, sortu, landu eta zabalduriko teologiazko joera indartsua. Horren abiaburuen lehen azalpen zabala Gustavo Gutiérrez-ek eman zuen Teología de la Liberación. Perspectivas izeneko liburuan (Sígueme, Salamanca, 1972). Honetara definitzen du autoreak teologia hori: "(...) reflexión crítica de la praxis liberadora, una teología de la transformación liberadora de la historia de la humanidad, y, por ende, también de la porción de ella --reunida en ecclesia-- que confiesa abiertamente a Cristo" (44. or.).

Askapen-teologia ez da sail jakin bati buruzko gogoeta fedezkoa; teologia, beraren osoan, egiteko metodoak definitu ohi du askapen-teologia.

Metodo hori, berriz, *behartsu eta zapalduen esperientziatik abiatzen da, eta funtsezko urrats hauek egiten ditu: 1. Pobre eta zapalduen aldetik beren egoeraz jabetzea, eta egoera horren azterketa sozio-analitikoa egitea, horretatik irtetzeko askapenaren bidea urratzeko asmoz; 2. Kristau fededunen partaidetza askapeneko ihardunean; 3. Askapeneko ihardunbide edo praxiaren fedezko gogoeta kritikoa.

Honetara laburbiltzen dute L. eta C. Boff anaiek askapen-teologiaren prozesua:

"Reflexionar a partir de la praxis, dentro del inmenso esfuerzo de los pobres junto con sus aliados, buscando inspiración en la fe y en el evangelio para el compromiso contra su pobreza en favor de la liberación integral de todo hombre y del hombre entero, eso es lo que significa la teología de la liberación" (Cómo hacer teología de la liberación, Ed. Paulinas, Madrid, 1986, 17. or.).

Askapen-teologiak *Biblian eta kristau-ihardunbide jatorrean aurkitu uste ditu bere oinarri eta norabide nagusi diren puntuok: a) Behartsuen eta zapalduen aldeko hautua; b) Askapenaren mezua berorren adiera psikologiko-historiko-teologikoan.

Zapalkuntzaren esperientzia eta askapenezko ihardunbidea daudenez teologiazko gogoetaren abiaburuan eta bide osoan, askapen-teologiak berak forma eta edukin ezberdinak hartuko ditu gizarte eta herri bakoitzean, bertan nagusia den zapalkuntza-formaren (politikoaren, ekonomiaren, sozialaren, kulturazkoaren, hizkuntzazkoaren) arabera. Horrela honelako izenak ere hartu izan dituzte askapen-teologiaren joera ezberdinek: "Askapen-teologia beltza", "Emakumeen askapen-teologia", etab. Asiako hainbat kristau-elkartetan askapen sozio-kulturala nabarmendu dute bereziki askapen-teologia lantzean.

Zapalkuntzazko egoeratik ateratzeko fededunak (fededunen elkarteak) duen esperientziatik Jainkoaren *hitzaren (Eskritura Santuaren) "irakurketa berria" egiteko *hermeneutika edo adierazpen-sistema herriarena da askapen-teologiaren metodologiaren gai nagusienetakoa. Biblia bera den bezala, teologia ere hizkuntzazko gertakaria da funtsean; horregatik hizkuntzazko zapalkuntzak eta askabideak esanahi eta eragin berezi-berezia ditu askapen-teologia lantzean.

"Hirugarren munduko" kristauen eta *Elizen ekarpen teologiko garrantzizkotzat hartu da askapen-teologia, eta halako balio unibertsala ere aitortu zaio Eliza osoarentzat. *Kristautasunaren etorkizuna neurri handi batez "Hirugarren mundu" horretan jokatu denez, garrantzi handiagoa hartzen du bertatik sorturiko askapen-teologiak. Horrek Herri bakoitzean eta nazioen artean eduki dezakeen erasan sozio-politikoaz ere oharturik dago hainbat agintari politiko.

Aitortzen zaion balio unibertsal horregatik, askapen-teologiak esanahi apartekoa du, "Hirugarren mundutik" kanpo ere, inperio ekonomiko-politiko modernoan eta botere estatutal-zentralisten kontra beren askapen sozio-ekonomiko eta nazional-kulturalaren aldeko borrokan diharduten gizarte eta Herrietako kristaudentzat ere.